

Ingeleseko hizkuntza gaitasunerako berariazko proben zuzenketa

Lehen Hezkuntzako 6.a

Sailkapen-irizpideak, mailaz maila

Ingeleseko hizkuntza gaitasunerako trebetasunak neurtzeko probak maila anitzeko probak dira eta proba horiek guztiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (HEEEB) mailak erreferentzia modura hartzen dituzte. Hartara, maila horiek ebaluatutako hezkuntza mailari, hots, Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailari egindako egokitzapena dira.

Zehatzago esanik, ingeleseko hizkuntza gaitasuna berariaz ebaluatzeko maila anitzeko probak lau trebetasun ditu. Ondorioz, lau *azpi proba* ditu: ahozkoaren ulermena (*listening*), irakurriaren ulermena (*reading*), idazmena (*writing*) eta mintzamena (*speaking*).

Zailtasun-mailaren arabera, ahozkoaren ulermenaren proban (*listening*) testeko galderak honela sailkatzen dira: lehen lau galderak A1 mailan, jarraiko bostak A2 mailan, eta azken seiak B1 mailan. Ikasleak 15 puntu eskura ditzake, gehienez. Maila bakoitzeko sailkapena testeko zatietan eskuratutako asmatze-kopuruaren arabera da (ikus 2. orrialdeko laburpena):

- “Aurre-A1” maila: probako lehen zatian bi asmatze edo gutxiago eskuratzen dutenak.
- “A1” maila: probako lehen zatiko hiru galdera edo gehiago zuzen erantzuteaz gainera, bigarren zatiko bi galdera edo gutxiago zuzen erantzun ditu.
- “A2” maila: probako lehen zatiko hiru galdera edo gehiago, bigarren zatiko hiru galdera edo gehiago eta hirugarren zatiko hiru galdera edo gutxiago zuzen erantzun ditu.
- “B1” maila: lehen bi zatietako hiru galdera edo gehiago eta hirugarren zatiko lau galdera edo gehiago zuzen erantzun ditu.

Idatziaren ulermeneko proba (*reading*) gorago aipatutako moduan zuzentzen da, gutxi gorabehera. Hala ere, lehen bost galderen zailtasun-maila A1ekoa da, jarraiko bostena A2koa eta beste bostena B1ekoa. Ikasleak 15 puntu eskura ditzake, gehienez. Aurreko kasuan bezala, maila bakoitzeko sailkapena testeko zati bakoitzeko asmatze-kopuruaren arabera izanen da (ikus 2. orrialdeko laburpena). Hala ere, desberdin baloratuko da, zatietako bakoitzean hiru erantzun edo gehiago eskatzen baitira.

Idazmena (*writing*) baloratzea konplexuagoa da. Lau trebetasun hartzen dira kontuan: edukia (*content*), lortutako komunikazio-trebetasunak (*communicative achievement*), antolaketa (*organisation*) eta hizkuntza (*language*). Trebetasun bakoitza 0tik 5era bitartean baloratuko da. Hartara, ikasleak 20 puntu eskuratu ditzake, gehienez. Mailaren arabera sailkapen-irizpideak 3. orrialdekoak dira.

Mintzamenean (*speaking*) lau trebetasun ebaluatzen dira eta haietako bakoitza 0tik 5 puntu bitartean baloratzen da. Ikasleak 20 puntu eskura ditzake, gehienez ere. Honako honetan kontuan hartzen dira gramatika eta hiztegia (*grammar and vocabulary*), diskurtsoaren erabilera (*discourse management*), ahoskera (*pronunciation*), eta elkarerraginekako komunikazioa (*interactive communication*). Mailaren arabera sailkapen-irizpideak 3. orrialdekoak dira.

Sailkapen-irizpideak, mailaz maila: LISTENINGa

LISTENINGen eskura daitekeen gehieneko puntuazioa = 15 puntu (15 galdera, 0-1 puntu bakoitzean)

Eskura daitezkeen puntuazioak: 0tik 15 puntu bitarteko zenbaki osoak

Lehen 4 galderen zailtasun-maila A1ekoa da (*Listening 1*)

Jarraiko 5 galderen zailtasun-maila A2koa da (*Listening 2*)

Azkeneko 6 galderen zailtasun-maila B1ekoa da (*Listening 3*)

LISTENINGeko mailak:

Puntuazioa	Maila
≤2 asmatze 1. multzoan	Aurre-A1
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≤2 asmatze 2. multzoan	A1
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≥3 asmatze 2. multzoan eta ≤3 asmatze 3. multzoan	A2
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≥3 asmatze 2. multzoan eta ≥4 asmatze 3. multzoan	B1

Sailkapen-irizpideak, mailaz maila: READINGa

READINGen eskura daitekeen gehieneko puntuazioa = 15 puntu (15 galdera, 0-1 puntu bakoitzean)

Eskura daitezkeen puntuazioak: 0tik 15 puntu bitarteko zenbaki osoak

Lehen 5 galderen zailtasun-maila A1ekoa da (*Reading 1*)

Jarraiko 5 galderen zailtasun-maila A2koa da (*Reading 2*)

Azkeneko 5 galderen zailtasun-maila B1ekoa da (*Reading 3*)

READINGeko mailak:

Puntuazioa	Maila
≤2 asmatze 1. multzoan	Aurre-A1
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≤2 asmatze 2. multzoan	A1
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≥3 asmatze 2. multzoan eta ≤2 asmatze 3. multzoan	A2
≥3 asmatze 1. multzoan eta ≥3 asmatze 2. multzoan eta ≥3 asmatze 3. multzoan	B1

Sailkapen-irizpideak, mailaz maila: WRITINGa

WRITINGeko bakarkako puntuak = 20 puntu (0-1-2-3-4-5 trebetasun bakoitzak)

Eskura daitezkeen puntuazioak: 0tik 20 puntu bitarteko zenbaki osoak

Ebaluatutako trebetasunak:

- Edukia (*Content*)
- Komunikazio trebetasunak (*Communicative Achievement*)
- Antolaketa (*Organisation*)
- Hizkuntza (*Language*)

WRITINGeko mailak:

Puntuazioa	Maila
0-3	Aurre-A1
4-7	A1 baxua
8-11	A1
12-15	A2
16-19	B1
20	B1 altua

Sailkapen-irizpideak, mailaz maila: SPEAKINGa

SPEAKINGeko gehienezko puntuazioa = 20 puntu (0tik 5 puntu trebetasun bakoitzak)

Ahozko epaimahai bakoitzean bi aztertzaile daude eta bi horien puntuazioen batezbestekoa egiten da.

Eskura daitezkeen puntuazioak: zenbaki **dezimalak** 0tik 20 bitartean

Ebaluatutako trebetasunak:

- Gramatika eta hiztegia (*Grammar and Vocabulary*)
- Diskurtsoaren erabilera (*Discourse Management*)
- Ahoskera (*Pronunciation*)
- Elkarerraginekoko komunikazioa (*Interactive Communication*)

SPEAKINGeko mailak:

Puntuazioa	Maila
$\geq 00,0$ - $\leq 03,5$	Aurre-A1
$> 03,5$ - $\leq 07,5$	A1 baxua
$> 07,5$ - $\leq 11,5$	A1
$> 11,5$ - $\leq 15,5$	A2
$> 15,5$ - $\leq 19,5$	B1
$> 19,5$	B1 altua